

2020KO ARTILE BILKETA PROGRAMA

Kaixo baserritar, aurtengoan ere antolatu dugu artile bilketa eta uztailaren bigarren hamabost aldian emango da zerbitzua.

Beste urteetako bilketekin alderatuz, aurten, ahalik eta gehien sinplifikatu nahi da, baina horrek, guztioi ahalegin handiagoa egitea eskatuko digu.

Antolakuntzan hiru erakundek hartuko dugu parte: Landaolak, Lurgintzak eta Abelurrek.

Finantzaketaren zati bat GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK egingo du eta bestea artzaia.

Kostua ardi-kopuruaren arabera izango da, erantsitako koadroaren arabera. Tarifa hauei %21eko B.E.Z.-a erantsi behar zaio.

ARTALDEA	KOSTUA
1-50	30,00 €
51-100	50,00 €
101-150	70,00 €
151-200	90,00 €
201-250	110,00 €
251-300	130,00 €
301-350	150,00 €
351-400	170,00 €
401-500	210,00 €
501-600	250,00 €
601-700	290,00 €
701-800	330,00 €
<800	330,00€ + 0,40 ardiko

Interesdunek 696433602 telefonora deitu behar dute. Telefonoa hartzen duenak informazio hau emango dizu:

- Entregatzeko eguna, ordua eta tokia.
- Artzainak bere izena, deiturak, helbidea eta NAN eman beharko ditu, eta bat etorri beharko du artalde hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren kanpainako datuetan erregistratuta dagoen izenarekin. Informazio hori beharrezkoa da faktura egiteko. Faktura hau, garrantzi handiko dokumentua bihurtuko da erakundeen aurrean (ikuskapenetan) artilearekin zer egin den adierazteko garaian.
- Artzainak azken erroldan zenbat ardi dituen adieraziko du.

Laguntzailea:

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA

Antolatzaileak:

abelur
nekazaritza zerbitzuak



LANDOLA
GIPUZKOAKO LANDA GARAPEN
ELKARTEN FEDERAZIOA

Entrega egiteko unean honela izango da antolaketa:

- Artzain bakoitzak artilea entrega-lekura esandako orduan eramango du.
- Zakuak artzainak berak hustu beharko ditu.
- **Entrega gunean sartzean, artzainak dagokion zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztatzea erakutsiko dio bertan dagoen arduradunari.** Horrek esan nahi du artzainak entrega egin baino lehen ordaindu beharko duela. Egiaztatze hori ezean ez da artillerik jasoko. Ordainketa egiteko kontu zenbakia hau da: **KUTXABANK ES98 2095 5029 1110 6295 0166 eta jarri beharreko kontzeptua: IZEN ABIZENAK**
- Entrega egin ondoren, entrega-leku horretako antolatzaileak faktura bat emango dio.

Egindako proposamenak artzainen ahalegin handiagoa eskatzen duela ulertzen dugu, baina profesional kopuru handia kudeatzeak ere kostu handiak dakartza, eta ahal den neurrian, mugatu behar ditugu. Kontutan izan behar da, artilea jaso ondoren, kamioi berezi batean eraman behar dela Nafarroara (Sandach produktua delako), kargatzeko luma-kamioi bat behar dela, eta, gainera, produktua eramaten den enpresan tasa bat ordaindu behar dela.

DEITU BEHAR DEN TELEFONO ZENBAKIA: 696433602

ORDAINKETARAKO KONTU ZENBAKIA: KUTXABANK ES98 2095 5029 1110 6295 0166,

jarri beharreko kontzeptua: IZEN ABIZENAK

ENTREGARAKO GUNEAK eta EGUNAK:

EGUNAK	LEKUAK	HELBIDEA
UZTAILAK 20	IDIAZABAL	DISEMINADO RURAL BARREIATUA, 89-93
	ASTEASU	AGROALDEAN, ZONA INDUSTRIAL Pol., 188
UZTAILAK 22	AZPEITIA	Urola erdiko LAPATX ZABORTEGIA S.A.
	BERGARA	EPELE ZABORTEGIA, ELORREGI AUZOA ZG
UZTAILAK 27	ASTEASU	AGROALDEAN, ZONA INDUSTRIAL Pol., 188
UZTAILAK 29	BERASTEGI	ARTALEKUN, AITZERGA AUZOA

Edozein zalantza edo argibide behar izanez gero, deitu adierazitako telefono zenbakira.

Ondo izan,

Azpeitian, 2020ko uztailaren 6an

Laguntzailea:

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA

Antolatzaileak:

abelur
nekazaritza zerbitzuak

